

txintxarri



Tipi-tapa tipi-tapa euskararen alde korrika!

Korrikak Donostia zeharkatu ostean, astearte gauen jaso zuen Lasarte-Oriak euskararen lekuko. / 8-9

TXINTXARRI

Gogoetarako plaza

Igandera bitarte 'Memoriaren Plaza' bisitatzeko aukera izango da Okendon /3

Iragan ostiralean egindako ezohiko Udalbatzarrean 2017ko aurrekontuak onartu ziren / 2

Enara Fernandezek bi domina irabazi ditu eski egokituko Espainiako Txapelketan / 10

Olarrondo jatexea

EGUNEKO MENUA 12€
5 lehen plater aukeran
+
5 bigarren plater aukeran
+
Postrea, edaria eta kafea

ASTEBURUKO MENUA 25,50€
5 lehen plater aukeran
+
5 bigarren plater aukeran
+
Postrea, edaria eta kafea

Ezkontza, jaunartze eta familientzako aukera aparta



Olarrondo1, 20170 Usurbil • 943 36 03 76 - 626 686 036 • info@olarrondojatexea.com • www.olarrondojatexea.com

Nagusia 49,
Lasarte-Oria
943 37 02 90

Jantzi denda
INQUIETUD

38-60 neurriak



2017ko udal aurrekontuaren egitasmoa onartu zuen ostiralean udal korporazioak. TXINTXARRI

la 25 milioi euroko aurrekontua du Udalak

Ezohiko udalbatzar saioa egin zuten iragan ostiralean korporazioko kideek 2017rako aurrekontuaren egitasmoa eztabaidatu eta onartzeko. Aurrera atera da azkenean: zazpi aldeko bozka, lau aurkako eta bost abstentziorekin

Txintxari

Lasarte-Oriako Udalak 24.920.428 euroko aurrekontua edukiko du 2017an. Egitasmoa eztabaidatu eta onartu ala ez erabakitzeko, ezohiko saioa egin zuten iragan ostiralean udal korporazioko kideek. Aurrera atera zen proiektua. Aldeko bozka zazpi izan ziren (PSE-EE); aurkakoak lau (EH Bildu eta PP) eta eta abstentzioak, bost (LOAD Lasarte-Oriak Ahal Du eta EAJ).

Hala ere, EH Bilduk eta PPK osoko zuzenketa bana aurkeztu zioten egitasmoari. Horrez gain, 27 emendakin partzial aurkeztu zitzaizkion, eta 5 tekniko. 15 onartu eta 17 baztertu ziren.

Osoko zuzenketa

Eztabaidatzen aurreneko puntuak PPK eta EH Bilduk aurkeztutako osoko zuzenketa izan ziren. PPKo Alejandro Saenzek hartu zuen hitza aurrenekoa, eta udal aurrekontuaren egitasmoak "nahastu" egiten dituela "udalerraren lehentasunak",

enplegua sustatzeko "diru-kopuru osoaren %1a" besterik ez duelako bideratzen azaldu zuen, besteak beste. Jesus Zaballos alkateak (PSE) erantzun zion: "Aurrekontuaren egitasmoa lantzen ari ginenean eta zirriborroa eskuetan genuenean jarri ginen harremanetan PPrekin bilera bat egiteko, baina ez genuen erantzunik jaso".

Eztabaidatu ostean, bozketa egin zuten: PPK bozkatu zuen alde, PSEk, LOADek eta EAJK aurka (12 guztira) eta EH Bildu abstenitu egin zen (3 guztira).

EH Bilduk bere osoko zuzenketa aurkeztu zuen ondoren. Pablo Barriok nabarmendu zuenez, "kezkarria eta arbuigarria" da aurrekontuaren proiektua. "Herriarren iritzia kontuan hartu gabe" egin da udal aurrekontuaren egitasmoa koalizio abertzalearen iritziz. Lasarte-Oriarentzat "plan estrategiko baten beharra" azpimarratu zuten: "Gauzak halamoduz egiten dira; adibide garbientako bat

Atsokabarreko kirol instalazioena da. Horren harira, ondare publikoa erabiltzea inbertsioak egiteko... latza iruditzen zaigu; legea alor horretan udalen aurka egonda ere, saiatu behar dugu beste bide batzuk urratzen eta beste plangintza batzuk egiten".

Zaballosek "epe luzera egindako aurrekontuak" direla aurtengoak, esan zuen. Atsokabarreko kirol instalazioen egitasmoari arau subsidiarioek zehazten dutela kirol ekipamendurako izan behar dutela lur horiek, eta kiroldegi berri bat egin aurretik Atsokabarreko instalazioak egin behar direla, "gaur egun Michelingo atletismo moduluan dihardutenak ez daitezten geratu entrenatzeko tokirik gabe". Osoko zuzenketa hau ere ez zuen onartu udal korporazioak.

Osoko zuzenketa zein partzialak mahairatu eta gero, 2017rako udal aurrekontua onartu ziren alderdiek euren balorazioak egin ostean.

Herriko elkarten urtekaria publikatu dute lehen aldiz

Lasarte-Oria Aldizkariak herriko elkarte eta sozietateak biltzen dituen urtekaria argitaratu du

Txintxari

Lehenengo aldiz, Lasarte-Oriako elkarte ugari biltzen dituen 'Sustraiak eta hegoak' urtekaria argitaratu dute. Alkate Jesus Zaballosek azpimarratu duenez, "aberastasun handia du herriak mota guztietako elkartei dagokienez". Horregatik, argudiatu dute "ideia ona" dela horiek biltzen dituen dokumentua plazaratzea.

Lasarte-Oria Aldizkariako kideak arduratu dira informazioa biltzeaz eta ordenatzeaz. 40 elkarte ingururen informazioa, historia eta ekintzak jaso dituzte lehenengo ale honetan.

Azaldu dutenez, "badira agertzen ez diren elkarteak", eta espero dute "datorren urteko urtekarian haiek ere azaltzea".

Etorkezuneko ale horiek egitea "erronka handia" izango dela adierazi dute Lasarte-Oria Aldizkariako kideek. Izan ere,



Urtekariaren azala. TXINTXARRI

"behin historia eta ibilbidea bilduta, beste motako informazioa jaso beharko" dute.

Dena den, nabarmendu dute, "lanarekin eta gaitan sakonduz" posible dela urtekari "are osoago" bat kaleratzea. Datozen astetan banatuko dutela jakinarazi dute.

Alkateak 2017ko aurrekontuak azaldu zituen prentsaurrean

Astelehen eguerdian Udalean alkateak egindako prentsaurrekoan eman zituen 2017. urterako onartu diren aurrekontuaren inguruko xehetasunak. Iragan asteko ezohiko Udalbatzar saioan onartu ziren horiek.

Azalduz beste zenbait aurrekontuaren artean, Atsokabarreko kirol-gunea, Esperantza auzoaren asfaltatze

lanak, Uistin kalearen berrurbanizatzea, herriko zenbait espazioaren estaltzeaz eta Biyak Bat egoitzako larrialdietarako irteeraz mintzatu zen, eta horiek, aurrekontuaren kopuru osotik suposatuko duten gastuaren berri ere eman nahi izan zuen.

Horiek azaltzearekin batera, PP alderdiarengatik aurrekontuetan parte-hartzerik egon ez dela azaldu zuen, baita EH Bilduri parte-hartze horretarako deia ez luzatzearen zergatiak ere azaldu zituen.

EAJ pozik da bere proposamenak onartu direlako aurrekontuetan

Pasa den ostiraleko Udalbatzarrean 2017ko aurrekontuei abstentzioa eman arren, "pozik" agertu dira EAJKo ordezkari Estitxu Alkorta eta Jon Antxordoki.

Nabarmendu dutenez, "arduratsu" jokatu dute, "herriarren interesa eta onura lehenetsiz". Hala ere, kontu hartzailearen kontrako txosten

bat egonik, baiezkoa ematea "ezinezkoa" zitzaien. Udaleko soldata masak "legeak ezarritakoa gaintzen duela" argudiatu dute.

Atsokabar auzoan egingo den kirolgunea eta Michelingo kiroldegi berrien finantziarioarekin pozik agertu dira Alkorta eta Antxordoki. "EAJK bere programan aurkeztutako neurria" dela azpimarratu dute, eta "pozik" daudela Udala Gobernuak aurrera eramatea erabaki eta bere Alderdiarekin lan egin duelako.

Memoriaren Plaza, gogoetarako gune

Astelehenean zabaldu zituen ateak Memoriaren, bizikidetzaren eta Giza Eskubideen institutuak antolaturiko 'Memoriaren Plaza' erakusketak. Apirilaren 9ra bitarte hainbat ekintza izango dira bertan

Maddi Noriega

'Elkarbanatutako memoria' lantzea du helburu 'Memoriaren Plaza' erakusketak.

Astelehenean egin zen irekiera ekitaldia eta aurpegi ezagun ugari bildu ziren hitzorduan. Alkatea Jesus Zaballoz izan zen oholtza gainera igotzen lehena.

'Aukera ona da gertatu denaz kontakizun konpartitu bat egiteko'. Hitz horiekin eman zion Zaballosek hasiera irekiera ekitaldiari.

Lope de Vegaren poema bat ekarri zuen gogora gero, eta hitzaldi laburrari amaiera eman aurretik, terrorismoaren biktime izan ziren Lasarte-Oriatarrak ekarri zituen gogora.

Alkatearen hitzak entzun ostean, 'Gogora' Institutuko zuzendari Aintzane Ezenarrok hartu zuen hitza, eta bertan bildutakoek zuzendu zitzaizkien.

"Azken hamarkadatan, gure herrian gertatu denaren gaineko memoria ezberdinen testigantza ezagutzea da 'Memoria Plazaren' helburua; biktimen eta herritarren lekukotasunak ezagutzea", azaldu zuen Ezenarrok.

Gerra Zibiletik hasita eta gaurdaino izan diren "esperientzia traumatikoak" bizi izan dituzten



Mahai ingurura herritar ugari hurbildu ziren. TXINTXARRI

biktimen testigantza ezagutu ahal direla azaldu zuen.

Biktimen testigantza berri jaso ahal izan zuten hainbat ikus-entzunezkoren bitartez.

Mahai inguruak

Astearte arratsaldean, Josu Elespe, Feli Goikoetxea eta Manoli Urritegi terrorismoaren biktimek partehartzearekin mahai ingurua egin zuten.

Bertan, bere testigantza partekatu zuten hiruek bertaratutako herritarrekin.

Senideak hil zituzten eta ondorengo urteetako gogoetak konpartitu zituzten, etorkizunera begira eman beharreko pausuei buruzko iritzia emanez. Izan ere, denek bat egin zuten gako batean: iraganeko zauriei eta minei buruz hitz egitea beharrezkoa da bakea eta elkarbizitza eraiki ahal izateko.

Ostegunean, berriz, Lasarte-Oriako Jesus Zaballoz, Hernaniko Luis Intxauspe eta Urrietako Mikel Pagola alkateen mahai ingurua izan zen.

NEURE KABUZ



GORKA LASA

Kondena

Espaloia estutzen den unean egin dut berarekin topo, aurrez aurre. Tokirik ez biontzat; beraz, gelditu, eta ormarantz baztertu naiz bera pasa dadin lekua utziz. Ziur aski askotan gurutzatu gara, agian astero, edo egunero, baina norbera berera doanean, eta parez pare nor dugun konturatzan ez garen gisan, oharkabea. Gaurkoan, ordea, begira geratu natzaio, so, ez dakit ze aurpegi izango nuen, baina begiak iltzaturik.

Emakume bat zihoan gurgildun aulki bat bultzatuz. Bertan eserita agure bat, adineko gizon bat, bere onenak emanak zituen gizasemea. Hego haize puntu batekin esnatu da gaur eguna, eta epeletik sargorirako bidea hartu zuen giroak elkar gurutzatu dugunean. Hala ere, hotzetik gehiago zuela adierazten zuen agurearen janzkerak, edo hala iritzi dio, behintzat, zer jantzi erabaki duenak. Erabaki, ezer gutxi edo bat ere ez, ez baitu egingo gizonak. Begirada galdua zuen, hortzik gabeko aho erdi irekia eta zimurrez arraildutako aurpegi zurbil eta meharra. Burua alde batera okerturik, eta gorputza indarge aulki gainean. Pena eman dit, bihotza xamurtu zait egoera ikusirik. Bera ere gazte, eder eta lerdan izango baitzen noizbait, eta orain berriz ezertarako gai ez. Batzuei, bizitzaren loraldian bor-borka daudenean, udaberria amaitzen zaie bat-batean. Ezustea, aizkorakada zehatz batekin moztu du bizitzara lotzen gaituen soka. Beste batzuek, berriz, udaberria amaitu bai, baina negu luzez irauten dute, ozta-ozta arnasa hartuz, bizi iraupenerako soka noiz etengo zain. Tira handik, tira hemendik, soka ari mehe, fin hauskor bat bihurtu arte, baina hausten ez dena. Zentzumenak ia galdurik, zutik egoteko gai ez direla, asteko zein egunetan bizi diren ez dakitela, bizi direnik ere ia antzeman ezinik heriotzaren korridorean bizi izatera kondenatuak. Duintasunez bizi nahi eta ezin duintasunez hil. Estatistikek diotenez gero eta luzaroago bizi omen gara, bizi ala iraun? Iraupenak ez baitu bizitzarik bermatzen.

Tortura kasuak mintzagai

Elkarbizik antolatuta, Laura Pegok ikastaroa eman zuen. Tortura kasuak identifikatzeko gakoak azaldu zituen, eta 1960-2013 aldirian Euskal Herrian gertatutakoak izan zituzten hizpide. Halaber, Kriminologiaren Euskal Institutuak egindako ikerketaren behin behineko emaitzak azaldu zituen Pegok.



TXINTXARRI

Herriak zure zerbitzuak ezagutzea nahi duzu?

...

Txintxarri publikitatea:
646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus



borobil
arkitektura

Kale Nagusia 27-29 behea
20160 Lasarte-Oria
943 50 78 51
info@borobilarkitektura.eus
www.borobilarkitektura.eus

- Energia Ziurtagiriak
- Eraikinen ITEak
- Aktibitate lizentziak
- Proiektuak
- Erreformatik



ADURIZ DE LASARTE, S.A.
BERTAN EKOITZITAKO KALITATEZKO PRODUKTUAK

- | | |
|-------------------|----------------------------|
| ✓ Odolkiak | ✓ Txistorra |
| ✓ Solomo antzutua | ✓ Solomoa baratxuritan |
| ✓ Etxeko txorizoa | ✓ Tripakiak, saltxitxak... |
| ✓ Basurde burua | ✓ Baserri pateak |

Loidi Barren kalea 3, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943 36 12 78 - 943 36 16 55 - 943 36 24 51



Donostiako Eusko Jaurlaritzaren egoitzan aurkeztu ziren Udaltop Topaketak. UDALTOP

Hizkuntza ohiturak aldatzeko esperientziak

Maiatzan egingo da Euskara Zerbitzuen Topaketa berria herrian. Horren berri eman zuten Estitxu Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko Zuzendariak, Jon Antxordoki Euskara Batzordeko lehendakariak eta Mikel Irizar Foru Aldundiko Euskara Zuzendariak

Maddi Noriega

Hizkuntza ohituren gaia aukeratu du Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketak bederatzigarren edizioarako; han eta hemen egiten diren esperientziak izan dira oinarri eta esperientzia horiekin batera, orain arte egin diren ikerketen berri ematea da Lasarte-Oriako Udalaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren nahia.

Zer dira hizkuntza ohiturak? Hizkuntza portaerak aldatzeko ekimen sozialek lagunduko al lukete euskararen erabilera areagotzen? Gisa honetako galderei erantzuna ematea izango da aurtengo topaketaren erronka nagusia.

Hizkuntza ohiturak aldatzeko helburuarekin, esperientzia ugari eman direla ohartu direla azaldu zuen atzoko agerraldian Estitxu Alkortak. Honekin batera, esperientzia horiek guztiak hizkuntzaren normalizazioan diharduten arduradun tekniko, politiko eta gizarte

mugimenduetako ordezkariak horiek nola mamitu diren azaltzea ere "interesgarri" iruditzen zaiela gaineratu zuten.

Agerraldian jakitera eman zuten moduan, bederatzigarren topaketa horretan, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako eta Euskaltzaleen Topagunea elkarrekin gauzatzen ari diren proiektu baten berri emango du Udaltopek. "Proposamen bat da. Hain zuzen, Euskal Herriko herri guztietan hizkuntza ohiturak eta gizarte aktibazioa elkarrekin lantzeko", azaldu zuten. Honekin batera, parte-hartzaileek bere ekarpenak egiteko aukera izango dutela ere nabarmendu zuten agerraldian.

Erreferentziak topaketa

Mikel Irizar Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendari Nagusiak Udaltopeko balioa azpimarratu, eta bederatzigarren urteko ibilbidean erreferentziak topaketa bihurtu dela nabarmendu

nahi izan zuen atzokoan: Udaltop galdu ezineko zita, euskara teknikarien topagune bihurtu dela ere adierazi zuten, eta hemendik aurrera, pixkanaka esparrua zabaltzea eta publiko berria bereganatzea nahiko lukete.

Horrekin batera, Jon Antxordoki Lasarte-Oriako Euskara Batzordeko lehendakariak Udaltopek betetzen duen beste ezaugarri batean jarri nahi izan zuen arreta atzoko prentsaurrekoan; "topaketa hausnarketarako plaza da eta horrek balio erantsia ematen dio. Egiten ari garenaz hausnartzeko, eta batez ere, egiten ari garen hori nola hobetu hausnartzeko. Eta bide batez, esperientziak trukatzeko eta elkarlanak abiatzeko".

Egitarau zabala

Beste urtebetez erronka bete asmoz, antolatzaileek egitarau zabala osatu dute edizio honetarako. Guztira, bost hitzaldi, bi mahai-inguru izango dira besteak beste.

Amaia Gonzalez Caballero eta Jose Mari Orbegozori aitortza

Omenaldi hunkigarria jaso zuten iragan larunbatean, dantzariak, Lasarte-Oriako Udaleko udalbatzar aretoan

Txintxarri

Herriko instituzio zein herritarren aitortza bero eta hunkigarria jaso zuten lepo beteta zegoen udalbatzar aretoan. Urte ugari daramatzate elkarrekin dantzan han eta hemen; martxo erdialdean sei dantza sari ekarri zituzten etxera Torremolinosen egiten den Munduko dantza Txapelketatik.

Amaia Gonzalez Caballerok oso hunkituta hitz egin zuen aretora bertaratu zirenen aurrean. Eskerrak eman zizkien bere ibilbidean zehar "euskarri" izan diren familiari, eta, bereziki, lagun eta dantza eskolako ikasleei. Era berean, esker hitzak izan zituen baita ere Udalarentzat, omenaldia egiteagatik. Eta, nola ez, Jose Mari Orbegozok dantza-bikoteari ere hitz ederrak eskaini zizkion: "Une onak eta txarrak



Amaia eta Jose Mari pozik. TXINTXARRI

igaro ditugu noski, baina oso gustura aritu gara beti eta horretan dihardugu, borrokan".

Jose Mari Orbegozok "osasuna eduki bitartean Amaiarekin, bikote gisa Euskal Herria harro defendatzen jarraituko dugu oholta gainean", adierazi zuen.



TXINTXARRI

GED Jarraipen batzordea

Lasarte-Oriako Gure Esku Dago herri mugimenduak badu jarraipen batzordea. Maiatzaren 7an egingo da herri-galdeketa gurean, eta hori bete beharreko baldintzatan ospatuko dela ziurtatzeko, Jarraipen Batzordea osatu eta bertako kideak ere izendatu ditu Lasarte-Oriako Gure Esku Dagok.

Lan eta Lanekin hitzarmena

Herriko Lan eta Lan Antzerki Taldearekin hitzarmena sinatu zuen astearte eguerdian Lasarte-Oriako Udalak. Hitzarmen horren bitartez, martxoaren 10ean eta maiatzaren 5erako

taldearen emanaldiak Manuel Lekuona Kultur Etxea egin ahal izateko leku uzte akordioa sinatu zuten. Honen bitartez, antzerki taldeak emanaldi horietan lortutako diruarekin bere ekintzak finantzatzeko soilik erabili ahal izango du. Hala ere, akordioarekin pozik azaldu arren, laguntza gehiago eskatu zuten Lan eta Lanekoek.

Ortopedia berria Lasarte-Orian

PUBLIERREPORTAJEA// Zenta Ortopediako Inax Garmendiarekin hitz egin dugu, nortzuk diren eta haien lan jarduera azaldu diezagun

Egia esan, ez zaudete Lasarte-Orian... Zergatik diozue "ortopedia berria Lasarte-Orian"?

Bai, egia da, ez gaude Lasarten. Errekalde auzoan kokatua dagoen ortopedia berria gara. Zuen herritik oso gertu gaude, oso ondo komunikatua dago. Lerrootatik geure burua Lasarte-Orian ezagutzera eman nahi dugu, bertako bizilagunek euren esanetara gaudela jakin dezaten eta gure zerbitzuak eskaintzeko.

Zer da Zenta? Zehazki zer eskaintzen duzue?

Enpresa gazte eta berria da. Bi urteko ibilbidea duen bost profesionalen osaturiko lan taldea. Helduei eta desgaitasunen bat duten pertsonen

zerbitzu osoa eskaintzen die. Ortopedia berria Lasartetik gertu, Donostiako Errekalde auzoan kokatua dago, beilato-ki ondoan. 400 m² erakusketa eta doako aparkalekua ditu. Pertsona helduentzako eta desgaitasunen bat dutenentzako mota guztietako laguntzarako produktuak saldu eta alokatzen ditugu. Gure eskaintza oso zabala da: ohe artikulatuak, gurpildun aulki elektrikoak eta eskuzkoak, moto elektrikoak, garabiak, "scooterrak"... Azken batean, pertsona guzti bizi kalitatean laguntzen duten produktuak ditugu.

Zertan da diru-laguntzen gaia?

Zorionez, Foru Aldundiaren eta Osakidetzaren nahiko di-

ru-laguntza daude, batzuetan jendeak existitzen direnik ere jakin ez arren. Laguntza produktuak erabili edo eskuratze-ko guk geronek tramitatzen ditugu diru-laguntzok. Gai honi buruzko doako aholkularitza eskaintzen diogu herrialde osoari; positiboki baloratzen den jarduera da, batzuetan interesdunak ez baitaki zer pauso eman behar diren. Ictus edo Alzheimer kasuetan pertsona bakoitzak dituen beharrak baloratzen ditugu...

Orduan, zuena ez da ohiko ortopedia ezta?

Zerbitzu osoa eskaintzen dugu, zabala; etxez etxeko laguntza, etxeko irisgarritasun eta egoitze lanak...



Zenta taldea zenbat kidek osatzen dute?

5 espezialistek osatzen dute Zenta Ortopedia. Elenak, terapeuta okupazionalak; Jacintok, laguntza teknikoetan teknikari espezializatuak; Aracelik, ortoprotesiko teknikariak; Inaxek, koordinatzaileak; eta Anak, zahartze gaietako orientatzaileak.

Zer motatako ekimenak antolatzen dituzue?

Gure publikoa pertsona helduek eta desgaitasunen bat dutenek osatzen dute, eta haiei zuzenduak daude gure egoitzan antolatzen ditugun ekintzak.

Antolatu dugun azkena, eskuzko gurpildun aulkien motorizazio sistemen inguruko izan da. Bestalde, pertsona helduen eta desgaitasunen bat duten mugimendu asoziatiboa garrantzitsua da guretzat, eta horregatik baita, haiei ahalik eta gehien eta modu zabalean lagundu eta aholkatzeko lankidetzarako hitzarmenak ditugu, hirugarren sektoreko entitate eta elkarteekin; Nagusilan, Afagi, Aslemegi...

Agila eraikina, Errekalde 59
Donostia
T. 943 105 205
www.zenta.es

Korrika egin aurreko festa anitza larunbatean

Larunbateko eguraldi ezin okerragoa ez zen oztopo izan herritarrek Korrika Festa ospatzeko. Alderantziz; akuilu izan zen astearte gauera begirako beroketa ariketak are intentsitate handiagoz egiteko.

Iñigo Gonzalez

Kantuan ekin zioten larunbateko Korrika Festari herritarrek, Loidibarren pilotalekuan. Xumela abesbatzako kideekin batera animatu ziren hainbat kantu ezagun abestera. Baita herri bazkaria prestatu zuten elkarte desberdinetako sukaldariak ere. Bien bitartean, gaztetxoek hainbat tailerretan hartu zuten parte, Ttakun Kultur Elkarteko begiraleen laguntzaz.

Behin indarrak hartuta, gaztetxoek kirol desberdinak eginez izerditu zuten, Ostadar SKTren eskutik. Gorputza mugimenduan jartzeko aukera bakarra ez zen hori izan, ordea; Ttirriki-Ttarrakako kideekin



Labaka eta Egizabal. TXINTXARRI

batera hainbat izan ziren erromerian parte hartu eta dantza egitera animatu zirenak.

Iluntzean ere, festa

Gogo biziz zeuden herritarrek Ane Labakaren eta Bea Egizabalen 'Erradikalak gara' ikuskizunaz gozatzeko, eta nabaritu da; lepo beteta zegoen kultur etxeko auditorioa. Bertsoak eta bakarrizketak uztartu eta egunerokotasuneko hainbat gai jorratuz (aniztasuna, euskalgintza eta indarkeria, kasurako), emanaldi bikaina eskaini zuten bi lasarteoritarrek.

Festa biribiltzeko, Rukula taldearen eta Zigor DZren musikaz gozatu ahal izan zen Loidibarrenen.

Barroko doinuak eskaini zituen Elsa Ferrer biolin jotzaileak

Danok Kide guraso elkarteak antolatuta, emanaldi atsegina eskaini zuen astezkenean Brigitarren komentuan.


Txintxarri

Zazpi urte zituela hasi zen Elsa Ferrer madrildarra biolina jotzen. Ibilbide zabala bizkar gainean daramala nabaritu zen atzo arratsaldean, Danok Kideren XII. Musika Topaketen harira Brigitarren komentuan eskaini zuen emanaldian. Hiru zatitan banatutako kontzertua eskaini zuen: J.S. Bach konpositorearen 'Partita n°2' jo zuen aurrena; ondoren, G. Ph. Telemanen 'Fantasia n°7'; eta, bukatzeko, Bach berriro ere. Zehazki, 'Partita n°3' obra.

Komentura gerturatutako herritarrek biolinarekin interpretatutako barroko doinuez gozatu ahal izan zuten.

Kurrikulum zabala

Arestian esan bezala, zazpi urterekin hasi zen Elsa Ferrer biolina jotzen. Horrekin batera, gaztetatik uztartu zituen ballet



Elsa Ferrer biolin jotzailea. TXINTXARRI

klasiko eta antzerkigintza ikasketak. Horrekin aski ez, eta abesbatza misto batean ere aritu zen. Madril eta Bartzelonako Goi Mailako Musika Eskoletan musika-ikasketak egin eta atzerrira joan zen gero biolina jotzen trebatzera.

Zilarrezko urtea

Hogeita bosgarren urteurrena ospatu zuen Semblante Andaluzek



Valentziako 'Raices del Sur' musika taldeak emanaldia eskaini zuen Mitxelingo festa-guanean. TXINTXARRI



Herriko hainbat talderen parte hartzea izan zen ospakizunean, danborradarena, besteak beste. TXINTXARRI

**Ika, ika, ika,
TTAKUN ERE KORRIKAN!!!**

- > Bideo eta argazki galeria txintxarri.eus-en.
- > Zuk ere korrikako bideo eta argazki politen bat baldin badaukazu, bidali edo elkarbanatu Txintxarrin!!





Hilabeteak eta hilabeteak guztia prestatzen igaro ondoren ospakizun asteburu handia espero eta nahi baino askoz azkarrago, ia konturatu gabe, igaro zen Semblante Andaluz Elkartearen urteurren ospakizunen asteburua. Iragan asteko ostiral arratsaldean asteburu luzea zeukaten aurretik elkarte lagunek, baina ohartzera, igande gaua iritsi zen. Azkar pasa ziren minutu eta orduak, baina horietan bizitakoak luzaroan gogoratuko dituzte parte hartu duten guztiak: zilarrezko ezteiei buruzko urrezko oroitzapenak.

Asteburu ederra antolatu zuten. Hamaika ekintzaz gozatu ahal izan zuten ospakizunean bildutakoek, eta herriko zein gertuko talde ugariaren parte hartzea nabarmena izan zen. Horien artean, Lasarte-Oriako Erketz Dantzari Taldea, Zero Sette akordeoi-orkestra, Xumela eta Lasarte-Oriako danborrada aritu ziren, besteak beste. Horiekin batera, Valentziako 'Raices del Sur' eta Huelvako 'Amigos de Gines' musika taldeek oso aho zapore ona utzi zuten.

25 urte bizitzan behin betetzen dira, eta behin ospatu, baina beste mende laurden lanean jarraitzeko indarrak ere hartu zituzten herritarren erantzuna ikusita.



'Amigos de Gines' taldeko musikarien konzertuaz gozatu ahal izan zuten festan bildutakoek. TXINTXARRI



Bazkari eder bat egin zuten iragan igandean urteurrenoko festara gerturatu ziren guztiak. TXINTXARRI

**LIKIDAZIOA
TELEBISTETAN**

**ERAKUSKETA
ALDAKETA**

**GURE
DENDA
HANDITU
DUGU**

Bideo TIEN 21

Lagunak

Etxekotresna
elektrikoetan
adituak

12 ORDAINDU
HILABETETAN
INTERESIK GABE
TIN: 0% TAE: 0%

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideolagunak.com



Txintxarri aldizkariko lagunok hartu genuen, Errekalden, Lasarte-Oriako lehen lekukoa. TXINTXARRI

Lasarte-Oriako euskararen



Aterpea Merkatarien Elkartek ere herriko kaleetan barrena eraman zuen euskararen lekukoa. TXINTXARRI



Muntteri-AEK euskaltegiaren ostean, LAB sindikatuak hartu zuen txanda. TXINTXARRI



Ostadar IKT ko kideek hainbatek ere aurtengo Korrikan izan zuten lekukoa eramateko tartea. TXINTXARRI



Xumela kantu-jirako lagunek Kale Nagusiko tartean eraman zuten lekukoa. TXINTXARRI

Orian ere ren alde!



Gure Esku Dago herri mugimenduko kideak eskutik helduta egin zuten Korrika. TXINTXARRI



Ikastetxeetako lasterkariaren ostean, Sorgin Jaiak taldeko gazteek jaso zuten lekukoa. TXINTXARRI



Sentimenduz beteriko lekukoa eraman zuten Arrate Otaegi eta Flekiren senitartekoei. TXINTXARRI



Dinbi-Banda batukada taldeko musikariek ere giro ederrean eraman zuten lekukoa herrian. TXINTXARRI



Umorea ez zen falta izan herriko pailazoaren lekukoa hartu zuten uanean ere. TXINTXARRI

Enara Fernandez bikain Espainako Txapelketan

Astelehen eta asteartean Baqueira Beret-eko pistan jokatu zen Espainiako Eski Egokituko Txapelketa, eta Enara Fernandez herritarrak bi domina lortu zituen jubentil mailako slalom eta slalom erraldoi frogetan

Martin Vicioso

Harro egoteko moduko emaitzekin bueltatu da Enara Fernandez Baqueira Bereten jokatu den Espainiako Eski Egokituko Txapelketatik.

Astelehenean eta asteartean lehiatu zituen slalom eta slalom erraldoi frogak, bere gida Miren Andonegi donostiarrarekin batera.

Lehenengoan, podiumeko koska gorenera igotzea lortu zuen, 02:07,97ko denborarekin. Astearteko slalom erraldoiean, berriz, ezin izan zuen frogako onena izan, eta astelehenean zilarrezko domina eskuratu zuen Ines Gortazar madrildarra gailendu zitzaion.

Bere gida Miren Andonegik oso balantze positiboa egin du. "Bereziki prestatu dugun Txapelketa da eta oso pozik gaude ondo atera zitzaizkigulako gauzak".

Halaber, batera denbora gutxi eraman arren, "ondo ulertzen" direla nabarmendu du. "Hobetzearren, entrenatzaileak



Enara Fernandez bere gida Miren Andonegirekin batera. MARI CARMEN CAMPO

esan digu hitz gehiegi erabiltzen ditugula, eta hori zaindu behar dugu hemendik aurrera".

Europakoa prestatzera

Datozen hilabetetan erronka handiak dituzte Fernandezek

eta Andonegik. Udararen Suitzara abiatuko da Europako Txapelketa prestatzera.

Izan ere, abendu aldera Lehiaketa garrantzitsua jokatu beharko du Austrian: Europako Eski Egokituko Txapelketa.



Javi Vecilla kapitaina, jaurtiketa egitear. TXINTXARRI

Zigor handiegia jaso zuen Ostadarrek azken minutuetan

Azken uneraino partidu orekatua izan arren, Cecilia Keabab Lasarte Ostadarrek ezin izan zuen punturik lortu

Martin Vicioso

Norgehiagoka osoa atezain jokalariekin jokatu zuen Cecilia Keabab Lasarte Ostadarrek, sailkapenean hirugarren postuan den Hirukide Eskolapioak gaitzitu nahian.

Tolosarrak aurretik jarri baziren ere, partiduari buelta ematea lortu zuen Ostadarrek. Hala ere, bigarren zatian Hirukide nagusitu zen eta 3-6 gailendu ziren Maialen Chourraut kiroldegian jokaturako partiduan.

Dagoeneko Gipuzkoako lehenengo mailan mantenduko direla badakite, eta urtea sendo

amaitzea da Cecilia Keabab Lasarte Ostadarren helburu nagusia.

Lau jubentil selekzioarekin

Unai Anguiano, Oscar Moises Lanzas, Iker Martin eta Alex Varela jubentilak Gipuzkoako taldeak deituak izan dira..

Dudarik gabe, Ostadar Areto Futboleko jubentil bi taldeen lan onaren ondorioz eskuratu dute deialdian sartzea. Izan ere, biak ala biak Gipuzkoako jubentil mailako ligarako kanporaketak jokatu dituzte datorren astetik aurrera.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA
KADETEEN OHOREZKO MAILA,
Ostadar SKT - Martutene KE Igandea. 10:00. Michelin.
INFANTILEN OHOREZKO KOPA
Trintxerpe CD - Ostadar SKT Larunbata. 10:30. Michelin.
ERREGIONALEN 1GO MAILA, KOPA
Asoleus - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Herrera, Donostia.
EMAKUMEEN IGOERA FASEA
Mutriku FT - Ostadar SKT Larunbata. 18:30. San Miguel, Mutriku.
ERREGIONALEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Aloña Mendi Larunbata. 15:30. Michelin.
JUBENTILEN OHOREZKO MAILA
Ostadar SKT - Mariño CD Larunbata. 17:15. Michelin.

ARETO-FUTBOLA
HERRIKO TXAPELKETA
Also - Txoko Ostirala. 19:45. Kirolgunea.
Keabab Taberna - Viña del Mar Ostirala. 20:45. Kirolgunea.
Aita Amari - Trumoi Larunbata. 09:30. Kirolgunea.
Kattagorri Insausti - Reformas Lagunak Larunbata. 10:30. Kirolgunea.
Indaux - Izkiña Larunbata. 11:30. Kirolgunea.
GIPUZKOAKO 1GO MAILA
ISU Lehiok - SD Euskalduna Ostirala. 20:55. M.Chourraut kiroldegia.
CD Mondrate - Cecilia Ostadar Larunbata. 17:30. Musakola kiroldegia, Arrasate.
3. NAZIONAL MAILA
Ostadar Antonio Aroztegia - Bilbo FS Larunbata. 18:00. M.Chourraut kiroldegia.

GIPUZKOAKO JUBENTILEN MAILA
Orixe Tolosaldea - Lasarte Kafe Bar Larunbata. 10:30. Uzturpe, Tolosa.
Kafe Buenetxea - Erain Igandea. 09:30. M.Chourraut kiroldegia.
SASKIBALOA
ERRENDIMENDUKO JUNIOR NESKAK
Ostadar SKT 'B' - ZAST Orio ZKE Larunbata. 09:30. M.Chourraut kiroldegia.
Ostadar SKT 'A' - Oiarso Larunbata. 11:00. M.Chourraut kiroldegia.
ERRENDIMENDUKO KADETEAK
Bera Bera Manteo - Ostadar SKT Larunbata. 16:00. Paco Yoldi Kirodegia, Donostia.
PARTIZIPAZIOKO KADETEAK
Askatuak Urumea - Ostadar SKT Igandea. 09:45. M.Chourraut kiroldegia
SENIOR EMAKUMEZKOAK, 1. PROBINTZIALA
Ostadar SKT - Bera Bera Gros Igandea. 11:00. M.Chourraut kiroldegia.

PILOTA
INFANTIL ETA ALEBINAK
Intza 2 - Añorga 2 (alebinak) Intza - Hernani (infantilak) Ostirala. 19:30. Michelin pilotalekua.
GIPUZKOAKO 4 T'ERDIKOA
Beloki (Tolosa) - Solano (Intza) Elola (Aurrera) - Iruretagoiena (Intza) Larunbata. 16:00tatik aurrera. Beotibar pilotalekua, Tolosa.
ESKUZ BINAKAKOIA
Arteaga II/Albisu - Ezkurdia/Merino II Igandea. 17:00. Bizkaia pilotalekua,
ERRUGBIA
EUSKAL LIGA
Babyauto Zarautz - Eibar RT Ostirala. 19:30. Asti, Zarautz.
16 URTE AZPIKOEN FINALA
Gure Etxea Beltzak - Bera Bera Larunbata. 12:00. Plaiaundi, Irun.

12/10 URTE AZPIKOAK
Federazioko jardunaldiak Igandea. 10:30. Asti, Zarautz.
JUDO
INFANTILAK
LOKE taldeko judoka infantilak Pou herrira abiatuko dira asteburuan. Julen Fernandez, Santi Mezzena, Hector Iñigo, Lucas Morales, Ekhi de La Cruz, Oier Bocos, Mario Herrero, Martin Sebastian eta Oier Guisado izango dira parte hartuko dutenak. Larunbata. 10:00. Pou.
TXIRRINDULARITZA
INFANTIL, KADETE ETA JUNIORRAK
Buruntzazpi Txirrindularitza Eskolako kideek lasterketak egingo dituzte Seguran, Eibarren eta Bergaran. Larunbata eta igandea.



Hamaiketik bederatzai partidu irabazi dituzte Arteagak eta Erasunek. TXINTXARRI

Arteagak nagusitasunez lortu du lehenengo txapela

Hasi eta bukatu jaun eta jabe izan ziren Axier Arteaga eta Jon Erasun Binakako Promozio Txapelketako finalean. 22-12 gailendu ziren Jon Ander Peñaren eta Ruben Salaverriren aurka. Txapelaz gain, lehiaketako pilotari onena izendatu zuten Arteaga

Martin Vicioso

Momentu gozoa bizi du Axier Arteagak. Gustura, konfiantzarekin eta orain arteko mailarik onenean ari da aurrelari lasarteoriatarra. Hala erakutsi zuen pasa den larunbatean Tolosako Beotibar pilotalekuan jokaturako Binakako Promozio Txapelketako finalean.

8-0 aurreratu ziren Arteaga eta Erasun, eta ez zirudien norgehiagokak alde egingo zienik. Lasarteoriatarra nagusi zen jokoaren alderdi guztietan eta tantoak erraztasunez amaitu zituen.

Peña eta Salaverri ez ziren fin hasi, eta partiduan sartzea lortu zuten berandu zen. Tanto txukun batzuk lortu bazituzten ere, bikote gorriak abantaila kudeatzen jakin zuten, gehiegi urduritu gabe.

Aipatzekoa, bestalde, Arteagaren atzelari Jon Erasunek egindako lan fina. Segurtasunez jokatu zuen, Txapelketa osoan zehar egin duen modu bereberean, eta tanto bakarra galdu zuen

finalean. Aurkariak bere jokoak zigortzen saiatu ziren arren, ez zuten lortu zizurkildarra gaintzea. Azkenean, 22-12ko emaitza eskuratu zuen bikote gipuzkoarrak.

Txapela etxeratzeaz gain, beste sari bat eskuratu zuen Axier Arteagak: Binakako Promozio Txapelketako pilotari onenaren saria. Lehiaketa bikaina egin du herritarrak. Hendaian Laso eta Iturriagaren kontra partiduari buelta ematear egon zen lehenengo jardunaldi hartatik, larunbatean Tolosan emandako erakustaldira arte.

Festa harmailetan

Herritar andana hurbildu zen Beotibar pilotalekura Arteagaren

TXAPELKETAKO PILOTARI ONENAREN SARIA ERE IRABAZI ZUEN AURRELARI LASARTEORIATARRAK

garaipena bertatik bertara ikustera. 145 sarrera inguru eskatu zituen familiak ingurukoentzat, eta harmailetan ere lasarteoriatarrak izan ziren nagusi. "Axier Arteaga!" edo "Segi pelotan" kantikoek soinu banda berezia ipini zioten garaipenari eta, ondoren, ordu txikietara arte luzatu zen ospakizunari.

Kantxa hartu zuten zaleek norgehiagoka amaitzean. Txapeldunak zoriondu eta haiekin argazkiak atera ondoren, haur batek ekarritako pilotarekin jokatzeari ekin zioten.

Atsedetik ez

Urtea ezinhobeto hasi badu ere, atsedenerako tarte txikia izango du Arteaga IIak. Banakako Promozio Txapelketa laster hasiko dute, eta Binakako an erakutsitakoaren ondorioz, faborito nagusien artean kokatu da. Igande honetan Binakako Final Nagusiaren atarian jokatu du Albisuren batera, Ezkurdiaren eta Merino IIaren aurka.

Laugarren garaipena eta lidertza emakumeentzat

Anaitasuna taldea 5-2 mendean hartuta, 12 puntu ditu Ostadar SKTk eta multzoko liderra da uneotan

Iñigo Gonzalez

Euskal Ligara igotzeko lehia zeresan handia ari da ematen Ostadar SKTren emakumezkoen lurralde mailako taldea. Iragan asteburuan 5-2 (Saioa Perezek eta Ainara Maciasek bina gol, eta Leire Gartzia beste) irabazi zioten Anaitasunari; 12 puntu dituzte zakuan honezkerok, eta multzoko liderrak dira, Anaitasunarekin eta Ordiziarekin berdinduta.

Fase hau bukatzeko lau partidu geratzen zaizkie urdin-beltzei. Asteburu honetan aukera ona dute goikaldean jarraitzeko, azken sailkatu Mutrikurekin neurtuko baitituzte indarrak.

Gol-sorta lidertza sendotzeko

Jubenilen Ohorezko mailako Ostadar SKTk mahai-kolpe indartsua jo zuen pasa den asteburuan, Añorgaren aurka, Rezolan. 2-8 irabazi zuen Javi



Cris Revillo baloiairekin. TXINTXARRI

Solchagak zuzendutako taldeak, eta lider jarraitzen du, 63 punturekin. Hiru gutxiago ditu Dunboa Eguzkik.

Ohorezko Erregionalak, aldiz, 3-1 galdu zuen Ordizian. Zail dute mantentzea, baina ez dute berehalakoan etsiko.

LOKEko judokak ongi eskola arteko Euskadiko jokoetan

Eskola arteko Euskadiko jokoetan lehiatu ziren LOKEko judokak asteburuan Gasteizen. Lucas Moralesek eta Martin Sebastianek txapelketa ona egin zuten, baina ez zuten esperotako emaitza lortu. Lehenak finalean galdu zuen, eta bigarrena dominetatik kanpo geratu zen berdinketa hirukoitza baten ondorioz. Bihar infantilak Pouen lehiatuko dira.

Herritar ugari Azkoitia-Azpeitia froga garrantzitsuan

Larunbatean korritu zen ospe handiko eta parte hartze internazionala duen Azkoitia-Azpeitia maratoi erdia. Herritar ugari hartu zuen parte bertan. Horien artean onena Andoni Illaramendi izan zen, 01:21:42ko denborarekin. Imanol Arteagak, Asier Gorostegik eta Ramon Altunak ere ordu eta erditik jaista lortu zuten.

Gizonezko seniorren saskibaloia taldea Lauko Finalera

Azken urratsa ematear dago Ostadar SKT-ren gizonezko seniorren taldea. Lurralde mailako bigarren ligara igo ahal izateko Lauko Finalerako garaile izan beharko dira. Bi norgehiagoka zail gaintu beharko dituzte. Lehenengo aurkari Eibarko Katu-Kale izango dute, eta Larramendiren eta Askatuak B-ren arteko garailea hartu beharko dute menpean ondoren.

Buruntzazpiko Beñat Carbayeda infantila garaile Donostian

Buruntzazpi Txirrindularitza eskolako infantilek lasterketa bikaina egin zuten larunbatean Donostiako Loiolako Erriberak sarian. Beñat Carbayeda lehenengo postuan geratu zuen, eta Iñaki Errazkin hirugarren. Bihar, berriz, Seguran dute hitzordua infantilek. Kadeteak Eibarren izango dira igandean eta juniorrak Bergaran.



Eguraldi txarrari entzungor egin eta irribarretsu helmugaratu ziren BTT probako parte-hartzaileak. TXINTXARRI

Eguraldi txarrari, aurpegi ona eta pedalkadak

Igande goizeko euri-jasek eta lokatzak ez zituzten Lasarte-Oriako 7. BTT proban parte hartu zuten lauhundik gora txirrindularien pedalkadak gelditu. 09:30ean irten ziren Antonio Mercero plazatik, eta, lehenago edo beranduago, irribarretsu helmugaratu.

Iñigo Gonzalez

Goizean goiz ohetik altxa eta eguraldiari begiratuta, bat baino gehiagok egingo zuen seguru asko igande goiza etxean goxogoxo pasatzeko plana. Ez zuten hori pentsatu Lasarte-Oriako BTT proban parte hartu zuten 403 txirrindulari ausartek. Euria euri eta lokatza lokatz, pedalkadaz pedalkada osatu zituzten 28 zein 38 kilometroko ibilbideak.

Goizeko 09:25. Antonio Mercero plazako lurra ez zen ikusi ere egiten ordurako: lauhun txirrindulari baino gehiago zeuden Lasarte-Oriako 7. BTTa noiz hasiko zain. Une horretan oso argi geratu zen eguraldiak ez zuela lasaitasunerako tarterik emango: pedalei eragiten hasi baino pare bat minutu lehenago sekulako euri-jasa hasi zuen. Dena den, hori ere ez zen oztopo izan, eta abiada bizian ekin zioten probari parte-hartzaileek. Guztira 403 animatu ziren aurten (435 zeuden izena emanda), iaz baino ehun inguru gehiago.

Euriarekin hasi baino lehen busti ziren, beraz, menditxirrindulariak. Lokatzu, handik gutxira, Andatza mendian barrena ibiltzen hasi zirenean. Halere, 28 zein 38 kilometroko ibilbideak trebezia burutu zituzten (bata edo bestea egiteko aukera 19. kilometroko anoa postuan hartu zuten), eguraldi txarrari entzungor egin eta pedalkada bakoitzaz gozatzen.

Helmugaratzea, irribarretsu

Antonio Mercero plazan zain zituzten lagun eta ahaideak. Egun euritsuak tarte bat eman eta gehienek ateri zeharkatu ahal izan zuten helmuga. Irteereleroko mailotek kolore ugari zeuzkaten, baina helmugan,

403 TXIRRINDULARIK BURUTU ZUTEN BTT PROBA, IAZKO EDIZIOAN BAINO 100 PERTSONA GEHIAGOK

bakarra: marroia. Hori bai, lokatzak ezin izan zuen estali parte-hartzaileek proba amaitzean aurpegian josita zeramatzen poztasun eta satisfazio irribarreak. Bizikletak ahal zuten tokian utzi, eta antolatzaileek goiz-goizetik prestatzen hasi ziren jaki eta edari desberdinak dastatu zituzten indarrak berritzeko. Ondoren, hala nahi izan zuenak, bizikletak mangerarekin garbitu eta Maialen Chourraut Udal Kiroldegian dutxa beroa hartu zuen etxeratu aurretik.

Kronika hau bukatzean dago eta ez zaie lerro bat bera ere eskaini emaitzei eta sailkapenei. Funtsean, zerrenda, zifra eta denborak ez direlako garrantzitsuak proba honen nondik norakoak esplikatzen. Baina, aipatzekotan, gauza bakarra, labur-labur: kirolak irabazi du, beste behin.

Proban zehar ateratako argazkiak txintxarri.eus web orrialdean ikusi daitezke.



MAIALEN CHOURRAUT

Ezin etxean irabazi

Maialen Chourraut piraguistak Espainiako Kopako bigarren proba jokatu zuen iragan asteburuan, Seu d'Urgelleko kanalean; etxean. K1 modalitatean bigarren izan zen sailkapen orokorrean, larunbatean irabazita eta igandean hirugarren geratuta. C1ean, berriz, laugarren izan zen; larunbatean bosgarren denbora onena egin zuen; igandean, laugarrena.



BURUNTZALDEA IKT

Gaztetxoenen lan bikaina

Buruntzaldea IKTko igerilari alebin eta benjaminek lan bikaina egin zuten asteburuan Tolosako Usabal kiroldegian. Kirol Zehaztasuneko 4. jardunaldia eta Alebin Ligako 6. jardunaldia jokatu zituzten.

Arduradunek adierazi dutenez, denek ahal zutena eman zuten, eta emaitzetan isladatu zen astean zehar egindako lana.

Babyauto Zarautzek igoera kanporaketak jokatu ditu

Eibarren irabaztea beharrezkoa zuen Babyauto Zarautzek igoera kanporaketak jokatu ahal izateko, eta ez zuen huts egin. 12-45 gailendu ziren zarautzarrak Unbeko errugbi zelaian. Lau lasarteoriatarrek hartu zuten parte norgehiagokan: Xabier eta Ander Rekondok, David Vegak eta Xabi Prietok. Azken honek garaipena ziurtarazi zuen

entsegua egitea lortu zuen. Gauzak horrela, Alacanteko La Vila taldearen aurka jokatu beharko dute kanporaketa. Lan gogorra dute aurretik gipuzkoarrek. Izan ere, igoerarako hautagai nagusiak dira Valentziarrak. Joaneko partidua hilaren 23an jokatu dute Astin eta itzuliko 30ean Alacanten.

16 urte azpiko Gure Etxea Beltzak taldeak, bere aldetik, Euskal Ligako finala lehiatuko du biharko 12tan Bera Beraren aurka Irungo Plaiandu zelaian.

ZORION AGURRAK




Amaior
Zorionak gure etxeko erreginari! Oso oso ondo pasa zure 9. urtebetetzean! Asko maite zaitugu bihotza! Aitatxo eta amatxo!!!



Aintzane
ZORIONAK politta eta hamahiru muxu potolo etxekoan partez!



Iraia
Zorionak bihotza!! Oso ondo pasa zure urtebetetzean. 10 muxu pottolo Leire, amatxo eta aitatxoren partetik.



Nahia
Zorionak gure etxeko printzesari! 5 urte dagoeneko! Festa eta festa, dantza eta dantza igaroko dugu! Infinitu maite zaitugu, Ekhi, Aitatxo eta Amatxo.

SUDOKUA

			7	9	3			
	3	2		6			9	
			2	5			8	
9						4		6
1	2	7				8	3	5
4		6						9
	9			2	7			
	7			1		9	5	
			3	8	9			

GUTUNA

Mila esker batzuk guztiei !!!

MUNTERI AEK EUSKALTEGIA

20. KORRIKA Otxandion hasi Iruña bidean, Lasarte-Oriatik pasa da, nola ez!

Honek herrian hamaika kultur ekintza ekarri ditu berarekin eta hauek guztiak aurrera

eramateko herritarron laguntza ezinbestekoa izan da.

Mila esker ekitaldietan parte hartu edo antolatzen lagundu duzuenoi, korrika lagun zareten dendari eta tabernarioi, korrika laguntzaile egin zaretenoi, 20. KORRIKako zatia hartu duzuenoi,txartelak jartzen lagundu diguzuenoi, herria girotzen aritu zareten trikitilari,

txistulari eta batukadari, Txarangari, barran lanean aritu zaretenoi, sukaldariei, zerbitzatzen eta ontziak garbitzen lagundu duzuenoi, erromeria bideratu zenutenoi, beroketa saioak zuzendu zenituztenoi, triki-poteoa girotu duzuenoi, pintxo-potea egin duzuen tabernarioi, kantu-jirakoi, familien arteko jokoak antolatu

dituzuenoi, abeslarioi, kontzertuak antolatu dituzuenoi, kazetarioi, argazkilarioi, kameralarioi, korrika egin duzuenoi, Lasarte-Oriako Udalari,...izendatzea ahaztu zaizkigun guztioi...

Euskal Herri osoan da arrakastatsua KORRIKA, baina zinez, Lasarte-Orian bereziki da halakoa.

Honako hitz hauek zuei denoi bihotzez eskerrak emateko dira. Ez daukagu hitz nahikorik zuek guztioi eskerrak emateko orduan.

Lasarte-Oriak gero eta BATZUK gehiago izan ditzan, hemendik aurrera ere jarrai dezagun herria euskaldun egiten. MILA ESKER !!!

Zer espero dezakegu Lasarte-Orian 5. edukiontzitik?

EGUZKI

Urte hasieran ezarri zen Lasarte-Orian etxeko hondakinen zatiki organikoa biltzeko 5. edukiontzia. Kanpaina ondo joan omen zen -Udalak 3.000 kubo baino gehiago banatu zituen- eta berandu baino lehen izango dugu lehen emaitzen berri. Emaitza horiek behar bezala ebaluatzeko, komeni da jakitea zein izan den orain arteko egoera, eta, horretarako, oso aproposak dira 2016an Gipuzkoan egin zen hondakin-bilketari buruzko datuak. Datu horiek oinarri hartuta, osatu dugu honako taula hau:

Lehenengo ondorioa begi-bistakoa da: orain arte Lasarte-Oria izan da gutxien birziklatu duen herria. Logikoa da, etxeko zaborren % 45 inguru organikoa delako, eta Lasarte-Oriakoa izan delako herritar guztiei organikoa biltzeko aukera eman dien azken udala, bai Mankomunitatean, bai seguru asko Gipuzko osoan. Ondorio nagusi horretatik eratorrita, beste ondorio bat: Lasarte-Oriako gaikako bilketaren ehunekoa (38,03) San Markoko Mankomunitatearen batz bestekoaren azpitik dago (46,27). Eta, halaber, San

Markoko batz bestekoa, Debarrena eta Txingudikoak bezala, Gipuzkoakoaren azpitik dago (50,20). Usurbil, Astigarraga, Hernani, Lezo, Oiartzun eta Pasaia emaitza bikainek nekez itxuratu ditzakete oso gutxi birziklaten duen Donostiaren emaitza txarrak. Hiriburua bere emaitzak kaskartu ditzakeen turismo/ostalaritzako industria handia du. Baina batez ere gutxi birziklatzen du gaikako bilketa egiteko sistema eraginkorrik ez duelako.

Bestalde, taulako eskuineko zutabeari erreparatzen badiogu, Lasarte-Oriak 2016an 243,07 kg errefus sortu zituen biztanleko. Beraz, Donostiatik (284,18) eta Urnietatik (248,72) oso gertu dago, eta, hain justu, horiekin batera partekatzen du errefus gehien sortzen dutenen podioa.

Lasarte-Orian 5. edukiontzia ezarri ondoren, zer esapero

dezakegu? Logikari jarraituz, gure herria Mankomunitatea azken putz izateari uztea espero dezakegu. Gipuzkoako batz bestekoa (% 50,20) lortuko ote? Zaila, baina, horrela balitz, gaitz erdi. Nolanahi ere, nekez espero dezakegu leku guztietan gutxienekotzat jotzen ari den % 60 lortzea.

Erraustegiaren gertuko mehatxuak ez ote ditu herritarrak bultzatuko beste herrietan baino gehiago birziklatzera eta, ondorioz, emaitza hobek lortzera? Kontzientziazioa eta motibazioa garrantzitsuak dira beti, baina gaikako bilketan erabakigarria da sistema eraginkorra izatea. Horra hor Debagoieneko, Tolosaldeko eta Sasietako emaitzak, % 79,64, 63,37 eta 60,01, hurrenez hurren. Bertakoek ez dute zertan kontzientzia-maila handiagoa edo txikiagoa izan San Markoko, Debarreneko eta Txingudiko

herritarrek baino. Beraz, galdera ezin da saihestu: eta Lasarte-Orian dagoen sistema eraginkorretakoa al da? Ez, Donostian dagoen berbera da, hain justu, eraginkortasun gutxiena duena, alde ederrarekin, gainera.

Beraz, labor-labor: 5. edukiontzia ezarri ondoren, gaikako bilketaren ehunekoa hobetzea espero dezakegu, jakina, baina Lasarte-Oriak tropeleko atzealdean jarraituko du. Horren kontziente izateak ez du esan nahi ahal den ongien egiten saiatu behar ez dugunik, besteak beste, birziklatzen dugun gramo bakoitzarekin agerian uzten ari garelako inposatu nahi diguten erraustegia ez dela beharrezkoa.

SAN MARKOKO MANKOMUNITATEA		
HERRIA	GAIKAKO BILKETA (%)	ERREFUSA (kg, biztanleko eta urteko)
Astigarraga	78,92	97
Donostia	39,85	284,18
Errenteria	42,30	215,43
Hernani	76,68	81,74
Lasarte-Oria	38,03	243,07
Lezo	73,73	111,9
Oiartzun	72,70	145,84
Pasaia	60,38	138,99
Urnietatik	48,60	248,72
Usurbil	79,42	81,26
Mankomunitate osoaren batz bestekoa	46,27	237,02

AZOKA TXIKIA

1. ETXEBIZITZA

101. SALDU

Herri batean etxea salgai 40.000 euro. Informazioa eskatzeko deitu 663 515 265

Larraga herrian etxea saltzen da. 3 logela, sala, 2 komun, sukaldia eta terraza. Informazio gehiagorako 654 727 789

102. ERRENTAN EMAN

Garaje itxia alokatzen da Pablo Mutiozabalen. Informazio gehiagorako. 686 674 552

2. LAN ESKAINTZAK

201. ESKAINTZAK

Emakume bat zaintzeko interno moduan lan egingo duen pertsona

bilatzen ari gara. 688 645 791

202. ESKAERA

Orduka edo barneko langile bezala aritu nahiko lukeen mutila naiz. Pertsona nagusiak zaintzan edo beharrezkoa den edozein lanetan. 603 720 826.

Emakumea lan bila, nagusien zaintzan asteburutan lan egiteko prest. 675 830 206

Etxeko lanak egin eta pertsona adinduak edo haurrak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Interna, externa edo orduka. 676 188 411

4. IRAKASKUNTZA


402. EMAN

Ingeleseko eskola partikularrak ematen dira. Maila eta adin guztiei zuzenduta 693 601 222

Eskola laguntza eskaintzen da, lehen hezkuntzako umeentzat partikularrak. Magisteriza ikasita eta partikularretan

esperientzia dut. 660 787 502

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Kotxerak	Antxisu	Institutoa	Antxisu
07:40*	07:45*	07:50*	07:55*

*Eskola egunetan

JAIOTAKOAK

Ares Larruskain Apeztegia Apirilaren 3an
Markel Quinteiro Lopez. Martxoaren 29an
Lur Jon Urreizti Eizagirre. Martxoaren 27an

HILDAKOAK

Joxepa Sarriegi Agirre. Apirilaren 6an, 91 urte.
Felisa Marin Ibañez. Apirilaren 3an, 86 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 07 DE MIGUEL

Larunbata, 08 ORUE

Igandea, 09 ORUE

Astelehena, 10 LASA

Asteartea, 11 GIL

Asteazkena, 12 URBISTONDO

Osteguna, 13 ACHA-ORBEA

Ostirala, 14 ACHA-ORBEA

Larunbata, 15 ACHA-ORBEA

Igandea, 16 ACHA-ORBEA

Astelehena, 17 ACHA-ORBEA

Asteartea, 18 DE MIGUEL

Asteazkena, 19 LASA

Osteguna, 20 GIL

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Echeveste Elozegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.

Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

ESKELAK

ESKELAK JARTZEKO: Txintxarri erredakzioan 943 37 14 48

- ▶ Hileta egunean eskela txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak paperean: 80€

Txintxarri: doan eta euskaraz Lasarte-Oriako etxe guztietan

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4
 20160 LASARTE-ORIA
 G-20407557

Erredakzioa

Maidier Azurmendi,
 Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega,
 Martin Vicioso.

Publikitatea

Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
 Ane Labaka, Mailu Arruti,
 Asier Odriozola, Maidier Seguroia,
 Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
 Edu Galarzi.

Informatikoa

Xabier Amadoz.

Administraria

Arkaitz Urdapilleta.

PUBLIZITATEA

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4
 Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
 Geltoki kalea 4
 Tel.: 943 37 14 48 (104)
 WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua:

SS-513/94
 ISSN: 1134-0053
 Tirada: 7.800 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

LAGUNTZAILEAK




HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



Gipuzkoako Foru Aldundia

KOMIKIA



LAN-ESKAITZA

Ttakun Kultur Elkartean administraria behar dugu

Bete-beharreko ezinbesteko baldintzak:

- Ofimatika eta enpresaritza gradua/zikloa
- Euskara: EGA edo baliokidea

Interesatuak:

Bidali kurrikulumak ttakun@ttakun.eus edota Ttakuneko bulegora (Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria)

Josue

Igeltseritza

Igeltseritza orokorra

Fatxaden estaldurak

Estalkien berriztatzeak

Barruko berrikuntzak

Gremioen koordinaketa

☎ 606 37 21 05 | Atallu pol. atallu, 28 | USURBIL

josueigeltseritza@euskalnet.net

%30 des kon tua

EGUZKITAKO BETAURREKOEN bilduma BERRI GUZTIETAN

www.multioplicasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRETERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Gure betaurreko guztiak bilduma berrietakoak dira

Kale Nagusia, 15

Tel.: 943 37 74 55

LASARTE

MULTIÓPTICAS

lehena zerbitzu optikoetan